MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2006ko APIRILA 50. ZENB.



KALAPUTXI 50



Benito eta Igor Romero

errepidea arnasten



UDAL LIBURUTEGIRA BISITA

<





badator

gaztetxe martxa

Aliprox

Zure marka berria

liderra den Talde baten babesarekin

gure bezeroengandik beti hurbil





autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Zer eduki beharko luke nire enpresaren Webguneak?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Nire enpresak **Interneten egon behar** du, baina, nola? **Webgune eraginkorra eta zuzena** izateko kontuan hartu behar dudan guztia. Jarraitu beharreko oinarrizko **gomendioak**. Domeinua. Webgunearen diseinua.

Deba Barrena
maiatzak 11
ELGOIBAR
Makina Erremintaren Institutua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:
Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
euskadi informazio gizartean en la sociedad de la información
e·gipuzkoa
SPRI



Kalaputxi hilabetekarixa

Argitaratzailea:
Karenka komunikazio elkartea
20830 MUTRIKU

Telefonoa: 943 60 34 68
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Laguntzailea: Mutrikuko udala
Tirada: 2.000 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati.
Banaketa: Mutrikuko Institutuko azken mailako ikasleak

Mutrikuko udala | Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzearren

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Eskerrak ematen dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi

aurkibidia

Informaziua 4
Zeuk esan 5-6
Puri-purixan 7
Bi hitzetan 8-9
Kulturia 10-11
Kirola 12-13
Kalaputxik 50 14-15-16-17
E, gazte! 18-19
Teknologia berriak 20-21
Gazterixa 22-23
Zorion agurrak 24
Argazki zaharrak 25
Agenda 26

IRITZIA: GARBIÑE GARAGARZA

Denbora zein azkar pasatzen den askotan ez gara konturatu ere egiten gauza zehatzen batean fijatzen garen arte. Oraingoan Kalaputxi izan da denboraren tarte horren berri eman didana: oraintxe jaio dala iruditu arren, 50. zenbakira heldu ez zaigu ba!

Beraz, lehenego eta behin zorionak eman nahi dizkiet, ixil-ixilean eta, norbaitek pentsa dezakeenaren kontra, txotxirik kobratu gabe hain lan eder, handi eta txukuna egiten dutenei.

Herrian zegoen hutsune bat betetzea zuten helburu nagusi: bertoko berriak zabaldu, eta gainera, euskaraz irakurtzeko aukera eman. Hori ondo baino hobeto bete dutela argi dago. Baina horretaz gain, askoz ere garrantzitsuago den lana egiten dute: balio asko baina preziorik ez duen lana. Herriko hainbat lagunen bizipen eta istorioak argitaratu dituzte. Herritar guzti horiek Mutrikuren historiaren parte dira, eta bakoitzak kontatzeko duena jasota sekulako altxoarra bildu dute: bai gaur egun herria osatzen dugunontzat, eta baita etorkizuneko mutrikuarrentzat ere.

Horregatik, Kalaputxikoak ate joka datozenean, pentsa dezagun bi aldiz ezetz esan aurretik. Batez ere, ezetzaren arrazoia argazkian agertzeak ematen digun lotsa puntu hori bada.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia (Osakidetza) 943 60 43 00
DYA Mutriku.....943 60 33 17
DYA zentrala.....943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Odol emaleen taldea.....943 60 39 30
Javier Otxagabia botika 943 19 50 26
Lon Apraiz botika.....943 60 32 50
Larrialdiak 943 461 111

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Udaltzaingua.....943 60 70 48
.....679 16 25 00
Udaletxea.....943 60 32 44
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Bake epaitegia 943 60 32 44
Epaitegia.....943 60 70 49

IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

GIZARTE ONGIZATEA

Gizarte Ongizate zerbitzua.....943 19 50 81
Anai Arte jubilatuen egoitza 943 60 34 10
Mikel Deuna zaharren egoitza.....943 60 38 71
Anaiarte jubilatuen egoitza 943 60 30 83

ZEBITZUAK

Pesa 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua.....905 50 50 05
Hondarribiako aireportua 943 19 23 47

BESTE BATZUK

Liburutegia.....943 60 41 82
Kiroldegia 943 60 31 75
Frontoia 943 60 45 44
Gasolindegia 943 60 32 10
Miruaitz Frontoia.....943 60 46 79

Autobusak

MUTRIKU – DONOSTIA – MUTRIKU

Mutrikutik	Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
	Zapatuak	10:00 / 16:30
	Jai egunak	10:00 / 19:30
Donostiatik	Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
	Zapatuak	11:30 / 19:30
	Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKU – BILBO – MUTRIKU

AUKERAK:

1. BIZKAIBUSen autobusa hartu Ondarroan:
   1- 6:10ean hasi eta 20:10 arte orduro.
   2- 6:40ean hasi eta 19:40 arte orduro.

2. PESAren autobusa hartu Eibarren, haraino Euskotrenen

ONDARRUA - MALLABIA - ONDARRUA

Ikus Kalaputxi 13. alea

Trenak

Tren guztiak, adierazitako lehenengo ordutik aurrera, **ORDURO**

DEBA – DONOSTIA – DEBA

Debatik 6:44-7:44-…-21:44
Donostiatik 5:47-6:47-…-20:47
Jai egunetan 8:44etan hasiko dira

DEBA – BILBO – DEBA

Debatik 6:43 -7:43 -…-20:43
Bilbotik 6:00 -7:00 -…-20:00
Jai egunetan 8:43etan hasiko dira

DEBA – EIBAR – DEBA

Debatik 6:43 / 7:43 / … / 21:43 — Jai egunetan, 8:43etan hasiko da
Eibartik 6:13 / 7:13 / ... / 21:13 — Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

Zaintzako Botikak (Mutriku – Deba)

APIRILA	
21etik 23ra	Javier Otxagabia
24tik 27ra	Amaia Zalduegi
28tik 30era	M. C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)
MAIATZA	
1etlk 4ra	Javier Otxagabia
5etik 7ra	Lon Apraiz
8tik 11ra	M. C. Riveiro
12tik 14ra	Amaia Zalduegi (zapatu goizean, Otxagabia)
15etik 18ra	Lon Apraiz
19tik 19ra	Zalduegi (zapatu goizean, Otxagabia)
20tik 21era	Javier Otxagabia
22tik 25era	Amaia Zalduegi
26tik 28ra	M.C. Riveiro (zapatu goizean, Lon Apraiz)

OTXAGABIA: 689 58 57 59 - APRAIZ: 630 05 50 97
ZALDUEGI: 669 26 22 01 - RIVEIRO: 667 33 88 90



ERAIKUNTZAK

SAGARMIÑA, S.A.

ETXEGINTZA ETA BERRIKUNTZA

San Agustin kalea, 11 - Tel eta Fax 943 60 41 89
Posta kutxa: 71 - MUTRIKU (Gipuzkoa)

gutunak

Gogoratu gutun guztiek agertu behar dutela nork idatzita datozen, nahiz eta ezizenez, inizialez edo bestela sinatuta argitaratu.
Ez da argitaratuko norena den agertzen ez duen gutunik.

Utzi esateko duzuna Barrenkalea, 12 - beheko buzoian edo kalaputxi@topagunea.com helbidean.

UDALAK EZ GAITU AINTZAKOTZAT HARTZEN!

Mutrikuko Udalak urruti ikusten gaitu. Badakigu herritik aparte bizitzeak zaildu egiten duela harremana eta beharbada baserriaren egoera ez dela oparoa, eta agian, Mutrikuren eguneroko dinamikarako ez dugula eragin haundiegirik... baina ia erabat ahaztuta edukitzea edo baserritarron gorabeherak direnean inolako informaziorik ez ematea, edo gure lurrak markatzen kanpoko jendea dabilenean guk ezer ez jakitea... zerbaiten adierazgarria dela iruditzen zaigu.

Aurreko udalaren dinamika datorkigu gaur egun burura. Sarri bilera zabalak egiten ziren, auzoetako beharrak identifikatu, eta gero ahal zen neurrian irtenbideak eman. Ikuspuntu serio baten ondorioa zen guzti hura eta benetako ahalegina ere bai.

Guk bide horri eutsi nahi diogu, guztion artean geure arazoak aztertu eta irtenbidea emanez. Horretarako, udalaren inplikazioa behar dugu, gure arazoen konponbideetan bidelagun izan dadin eta ez azkenetan ikusten dugun jarrera hotza, urrutikoa eta sorbaldak jasotzearena.

Azken sasoi honetan hainbat gai korapilatu zaizkigu eta egoera desberdinak sortu dira. Batzutan informaziorik ez, bestetan ez dela udalaren eginbeharra..., nahi dena, baina azkenean gure arazoen aurrean ez dugu jarrera laguntzailerik aurkitu.

Besteak beste, honako gai hauek azpimarratu nahi genituzke:

- Elurra eta izotza egin duen egunetan baserritarroi ez zaigu laguntasun haundirik eskaini. Beste hainbat herritan udalak izan duen jarrera aktibo hori ez dugu hemen ikusi.

- Jaurlaritzak zehaztu duen Santiagoko bidearen seinalizazioa eta beraren inguruan bete beharreko baldintzak ikaragarri kaltegarriak izateaz gain, guk ezer jakin gabe gure lurretan sartu eta mugak markatu dituzte. Honen aurrean udalaren aldetik ez dugu inolako konpromisorik eta bitartekaritzarako borondaterik ikusi.

- Laister behin betiko onartuko diren arau edo norma berrietan, hainbat lur eremu babestu gisa jarri dira. Aldaketa eta proposamen garrantzitsu hauen aurrean, informazio eza nabarmendu dugu.

- Gure baserri ondoan seme-alabek etxea eraiki dezaten eta bide batez baserriaren geroari babesa eman diezaioten, izugarrizko oztopoak jarri dizkigu udalak segregazioa dela eta ez dela, beste hainbat herritan ematen denean. Malgutasun eza eta irtenbide adostua aurkitzeko borondate eza nabarmendu dugu.

- Uraren kanalizazio berria egiterakoan, harturiko erabaki asko ez dira batere egokiak gure baserrietarako. Honen aurrean sorbaldak jaso eta ezer gutxi egin du udalak.

- Bere garaian, merkatu plazaren berrikuntzarako arrazoietako bat baserriko produktuak bultzatzearena zen. Hainbat lan eta azterketa egin eta gero, azken momentuan udalak beste erabilpen bat eman nahi dio.

- Mutrikuko Udalak hainbat aldiz eskatu den baserri lurraren azterketa egina izango balu, nekazaritza, abelzaintza eta basogintza eremuak zehaztuz, beharbada gaur egun eskuartean dauzkagun arazoak ez lirateke horren latzak izango eta ez ginateke noraezean ibiliko.

Dena dela, okerrena barneratu zaigun sentsazio mingotsa da. Aintzakotzat ez hartzearena. Aurrera begira kontutan har gaitzazuen eskatzen dizuegu. Horren esperantza daukagu.

Baserritar talde zabal bat

URAZANDI ALA URAZAMENDI?

Autobusean noalarik, non ikusten dut kaleak izendatzeko seinalea: Urazandi.
Nire barnerako pentsatu dut *uraz hemendik gaude ba!*. Horrekin batera, gogoratu nuen nire amona Mariarekin edukitako elkarrizketa orain dela hogeita bost urte.
- Amona, Urazandi baserriko gizonak eskumiñak eman ditx zuretzat.
- Neska, Urazamendikua izango den. Ez den ikusten uraz hemendik dagoela? Urazandi debarrentzat izango den!
Ez naiz gai honetan aditua, baina pentsatzen dut kale eta toki izenak badutela euren esanahia eta historia. Dagokionak egin al du hausnarketa hori?

M.A.T.

GAUZAK ARGITZE ALDERA...

Mutrikuko PNVk "Mutrikuko herriari" idatzian agertzen dituen erdi-egia eta gezur biribil guztiek erantzuna eta azalpena eduki arren, ez gara joku zikinean sartuko.

Gauzak horrela, hiruzpalau kontu argitzera gatoz:

- Mutrikuko Ezker Abertzaleko ordezkariok ez dugu herriaren izenean erabakirik hartzen. Herri batzarrak dira erabaki guneak.Herri batzarrak erreferendumaren aldeko bozka egin zuen iaz eta hori defendatzen dugu. Aurreko urteetan, Portuaren Plan Berezia bultzatu zuenean, bere osotasunean defendatu genuen bezala.

- Hortaz, Mutrikuko Batasuna ez dago Portu berriaren kontra, proiektua herri kontsultara eramatearen alde baizik.

- Beraz, ez dago jarrera aldaketarik, barne demokrazia ariketa da. Gure oinarri sozialak esaten duenarekin koherenteak gara.

Gaur egun, Mutrikuko Batasuna erabakitze prozesuan dago, Portu berriari buruzko erreferendum horretan baiezko ala ezezko jarrera hartuko duen erabakitzeko, aldeko eta kontrako faktoreak baloratuz. Hilabete batzuk barru, azken hitza, oraingo honetan ere, herri batzarrak izango du.

Hausnarketa horretan egoteak ez du esan nahi, herri ordezkari bezala, behar den foroetako lana baztertu dugunik, Batasunak orain arte bezala lan egingo du Babes dikearen eta Plan Bereziaren garapenak herriari onura ekar diezaion.

Azkenean, mutrikuarrek esan beharko dute garapen hori nahi duten ala ez, inongo inposaketarik gabe. Gure kideek eskatzen dutena onartzen dugun bezala, herri osoak esaten duena onartuko dugu.

Ohar hau bukatzeko, esan ez dugula ulertzen herrirako proiektu estrategiko honen aurrean alderdikeriatan ibiltzea, herri galdeketa bat, eskubide demokratiko bat, eskatzen dugulako. Batez ere, Mutrikurako aukera garrantzitsu hau, joko politikoen gainetik herriko alderdi eta eragileak batuta lortu dugula jakinda, batean edo bestean agintzen zegoenari begiratu gabe.

Mutrikuko Batasuna

HERRIA EZ DA PORTUAN HASTEN, EZTA AMAITZEN ERE

Aspaldian eztabaida bizia dugu herrian portuaren proiektuaren inguruan. Lanak hasita daude, portuarenak, babes-dikearenak, lehenengo fasearenak, fase guztienak... Nolanahi izanda ere, herritar gehienok portuaren lanak ikusten ditugu hasita. Batzuk pozik, beste batzuk haserre. Haserre, nire ustez, ez azken helburuarengatik (itsasoko sarrera baretzearenarekin guztiak ados baitaude), bai prozesuak bestelako iritziak onartzeko eman dituen aukera urriengatik.

Ulertzen ditut pozik daudenak eta ernegatuta daudenak ere bai. Nik uste mutrikuar gehienok dauzkagula alderdi biak gure barruan baina, tamalez, gizartean bakoitzak duen rolari lotuegi bizi gara.

Nire hausnarketa honetan, baina, beste bi alderdiri erreparatu nahi diet, obrak hasita daudela ikusita eta babes dikea amaitu arte jarraituko dutela konprenituta. Batetik, hondartzarena; bestetik, lehorrarena.

Aurki, uste baino lehenago, uda iritsiko zaigu eta, horrekin batera, hondartzara joateko garaia (batzuk lehenago hasiko dira). Pentsatzen dut honez gero hasiko zirela horrekin pentsatzen, baina erabakimena duenak badu nahikoa lan mutrikuarroi eta udaldian Mutrikura hondartza gosez datozen kanpotarrei hondartzarako aukerak emateko. Kamioitzarren trafikoak eta horiek altxatutako hautsak ez dut uste lehenengo plaiako eta danborreko ingurunea oso egoki utziko dutenik... Arranpla, zabalgune berria eta pistina bera ere hor daude, bai, baina... Eskerrak Ondarbeltz eta Saturraran hor dauzkagun!

Bestetik lehorrarena aipatu dut. Izan ere, ematen du portuarenak herriko beste arazo guztiak estaltzen dituela. Ez diot portuarenari duen garrantzia kendu nahi, baina arazo gehiago ere badadue herrian, ezta? Zerrendatzen hasiko bagina, kontutxo batzuk aterako litzaizkiguke, portuarenarekin batera, datorren urtean edo hurrengo bost urteetan edo hurrengo hamar urteetan edo nahiko genukeen epean burutzeko modukoak. Datorren urtean hauteskundeak.

Itsasoa eta portua, biak hor ditugu baina danbor muturrera joan eta lehorrera begira jarriko bagina, beharbada esango genuke: lehorrean ere badago zer eginik!

Andiko





Osasunagatik elkarlanean

**Apirilaren 7a, Osasunaren Mundu Eguna.
OMEk, Osasunerako Mundu Erakundeak, osasungintzan dauden giza baliabideen krisiari zuzendu dio egun seinalatu hau. Erakunde honen arabera, munduan zehar gero eta gutxiago dira osasun arloan lanean dihardutenak eta gutxitze honen ondorio zuzena profesioanl hauen eskasia da.**

Gizartea kontzientziatzeko asmoz 1950 urtetik aurrera apirilaren 7a Osasunaren Mundu Eguna da. Aurten, OMEk giza baliabideen krisiaren inguruan egin nahi izan du hausnarketa, krisi honek oinarrizko osasunean duen eragina ikaragarria delako, osasun sistemaren giltzarria profesionalak direlako eta krisi honek mundu osoari dagokiolako.

> *Osasunaren Mundu Egunaren helburua giza baliabideen krisiaz hausnarketa egitea da*

OMEn arabera emaitzak garbiak dira; eritetxeek zein ospitalek ez dute behar beste profesional eta berriak hartzeko ere nahikoa lan.

Arestian aipatu bezala, hamarkada luzeetako anemia inbertitzaile baten ondorioak jasotzen ari gara. Utzikeria honek oso kaltegarriak diren emaitzak izan ditu; ez da ahalegin berezirik egin profesional hauen lan baldintzak hobetzeko eta prestakuntzak zein ordainsariak geldirik egon dira eta, ondorioz, adituek edo jantziak diren profesionalek atzerrira atera behar izan dute edo aurretiazko jubilazioak hartu behar izan dituzte... Errosarioa amaigabea da.

Krisi honen adibiderik garbiena Afrika azpisahararra da, bertan 750.000 osasun langile baitaude 682 milioi lagunentzat. Kopuru hau aldatu egiten da beste herrialdeetan baina bertako profesionalen zahartze tasa ere altuagoa da.

Adituen arabera egorak izango luke etorkizunik baldin eta modu desberdinean jokatuko balitz, hots, nazio mailan zein nazioarte mailan kokatu beharko litzateke afera. Era berean, Gobernu desberdinek, buruzagi komunitarioek, Nazio Batuak, osasun profesionalek eta Gobernuz Kanpoko Erakundeek elkarrekin hartu beharko lukete parte. Ez dago soluzio bakarra ikaragarria den arazo honetarako, baina urratsak ematen hasi behar da: Soldata eskalak berrikustea, pizgarriak indartzea, prestakuntza teorikoak zein praktikoak bultzatzea behar-beharrezkoak dira egoera penagarri honetatik ateratzeko.





> *Ez dago soluzio bakarra ikaragarria den osasun ezaren arazoarentzat*

Edari biltegia
Iñarrairaegi
Tel./faxa: 943603938 · Etxekoa: 943603893 · Sakelekoa: 609413306 · "Mendi azpi" · 20830 MUTRIKU

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

MAIATZAK 1



Ate joka dugu jadanik Maiatzaren 1a eta auten gehiengoa diren sindikatuak, hots, ELA eta LAB, bakoitza bere aldetik burutuko du Langilearen Eguna.

ELA sindikatukoek "Langile jendearen Euskal Herria eraiki" lemapean bilduko dira Bilbon eguerdiko 12etan.

LAB sindikatuak berriz, eskualde buruetan deituko ditu bere afiliatuak eta lan prekaritatearen aurka zabalduko dute euren aldarria.

MADARIAK ARDOTAN



(4 lagunentzat)
Osagaiak:
4 madari
litro 1 Errioxako ardo beltza
litro 1 ura
250 gr azukre
kanela zotza

Kazola batean sartuko ditugu madariak, ardoarekin, azukrearekin, urarekin eta kanelarekin. Irakiten hasten denetik, 60 minutu gehiago utziko ditugu sutan. Gero, madariak, beste azpil batean jarriko ditugu eta lapikoan dauden osagaiak geldi utziko ditugu almibarra egin arte. Azkenik, almibarra madaien gainetik botako dugu.
On egin!

ALKOLE-INTXIRRIKOEK ITSASOAN IBILTZEKO SEGURTASUNARI BURUZKO IKASTAROA ANTOLATU DUTE.

Alcolea-Intxirri Elkarteak itsasoan segurtasunez ibiltzeko ikastaroan antolatu zuten hil honen 8an. Bertan, 50 herritar inguru bildu ziren; gehienak gizonezkoak, baina tartean emakumeren bat edo beste egon zen. Danborraren puntan bildu, eta laguntza seinaleekin praktikatzen ibili ziren. Eskuzko bengalak, suziriak eta kezko seinaleak noiz eta zela erabili behar diren zehatz azaldu zieten Gurutze Gorriko lehendakari ohi Kepa Lopezek eta FEDE Villacorta tizas-kapitainak. Herritarrek bengala eta suziriekin praktikatzeko aukera ere izan zuten. Ikastaroa hasi aurretik eta amaitu ondoren, Villacortak Bilboko segurtasun dorrera deitu zuen, ateratako soinuaren ondortiozabisuren ingurutik bat egonez gero, ikastaroan zeudela jakin eta lasai egoteko.







ESKUBALOIKO EUSKAL SELEKZIOAK BI MUTRIKUAR AUKERATU DITU

Jauja Eskubaloi Taldeko entrenatzaile Mikle Mariezkurrena eta Idoia Eguren infantil mailako jokalaria Euskadiko Selekzioan Gasteizen egin zuen konzentrazioan parte hartzeko deitu zituen. Mikelek lehen urteko kadeteak entrenatu zituen apirilaren 15 eta 16an, Idoiak, berriz, infantilekin entrenatu zuen apirilaren 13tik 15era. Tartean partida bat ere jokatu zuten, eta entrenatzailea eta jokalaria aurrez aurre egon ziren bertan.

Izan ere, Idoiaren taldeak Mikelek entrenatzen zuenaren aurka aritu zen.



PALA TXAPELKETA AZKARRA

Kirolberri enpresak pala txapelketa azkarra antolatu du Maiatzaren hasierarako. Zehatz txapelketa maiatzaren 5ean jokatuko da, eta parte-hartzaileak bikotekaa arituko dira Partida azkarra izango dira guztiak; galdu ahala kanporatuta gelditzen dira bikoteak, eta irabazleak aurrera egingo dute. Lehen bi postuetan gelditzen diren bikoteek sariak eskuratuko dituzte. Txapelketan parte hartu nahi duten guztiek, apirilaren 28a aurretik eman beharko dute izena. Horretarako kiroldegira deitu besterik ez da egin beharko. Telefono zenbakia: 943603175.

komikixa **gotzon santander**



UDAL LIBURUTEGIA

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna dela aitzakiatzat hartuta, Udal Liburutegira egin dugu kirikaratxo bat. 1987an zabaldu zituen ateak eta ordutik hortxe jarraitzen du Zabielen irakurzale guztiei bere zerbitzuak eskaintzen. Azken aldian aldaketa handiak izan ditu eta horrexeri buruz hitz egin dugu Lola, bertako arduradunarekin.

Nolako aldaketak izan ditu liburutegiak?

Lehen lokal bakarra genuen denentzat: heldu eta haur. Hura ez zen egokiena; ez zen erraza umeak kontrolatzea. Orain, ordea, bi gune desberdin ditugu: heldu eta gazteentzat gela bat eta haurrentzat beste bat. Niretzat zoragarria izan da haurrentzat leku berezia prestatzea; liburutegiak asko irabazi du horrekin.

Horretaz aparte, ordenagailuak sartu ditugu. Lehen KZgunea Beheko plazan zegoen, baina egunero zabaltzetik astean behingora pasa zirenean, hona liburutegira ekartzea pentsatu zuten. Horrela informazio iturri guztiak elkartu ditugu. Jendeak egunero erabiltzeko aukera dauka eta liburutegia aberastu egin da: Interneta erabiltzeak aukera berriak eman dizkigu. Ordenagailu hauek informazioa bilatzeko edota posta elektronikoa (e-maila) irakurri eta bidaltzeko dira. Ikaragarri erabiltzen dira. 5 ordenagailu daude eta normalean nahikoa dira, baina batzuetan zain egon beharra ere egokitzen da. Eta, jakina, zerbitzua doan ematen da.



Noiz zabaldu duzue umeen liburutegia?

Umeen liburutegia berri-berria da: otsailean zabaldu dugu. 12 urte artekoentzat antolatuta dago. Toki txikia da eta berehala betetzen da, baina oso ondo dago. Egunero zabaltzen dugu arratsaldeko 5:00etatik 7:00etara eta zaintzaile bat dago eurekin lanean. Miren Beristain da horren ardura daramana; praktikak egiten ari da bera.

Zertara etortzen dira gehienbat?

Gehienbat Interneten kontsultatzera, egunkariak irakurtzera eta, beste batzuk, eskolako lanak egitera etortzen dira. Irakurtzeko liburuak hartzera etortzen direnak, gehienak, emakumeak izaten dira eta egunkariak irakurtzera, berriz, gizonezkoak. Sei egunkari ekartzen ditugu egunero. Lehen, batez ere, haurrak eta gaztetxoak etortzen ziren, baina orain jende heldu gehiago etortzen da. Alde guztietatik hobetu da eskaintza.

Zer da IRAKURKETA SAREA?

Hori ere beste gauza berri bat da. Oso berria da. Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionala osatu da sarean. Katalogo kolektiboa daukagu eta Web orri bat dago liburutegi bakoitzaren fondoak azaltzeko. Liburu jakin baten bila bazabiltza, hor ikus dezakezu zein liburutegitan dagoen edo, bestela, liburutegi jakin batean zer daukaten ikusi ahal duzu. Horrekin zer daukagun? Ba, zuk baldin badakizu interesatzen zaizun liburua halako liburutegitan dagoela, bertara joan zaitezke liburua eskatzera, edota zeure liburutegira ekartzeko eska dezakezu. Nire ustez, zerbitzu hau ikertzaile eta ikasleentzat laguntza handia da. Agortuta dagoen libururen bat lortu... dokumentu

> *"Oso pozik nago; liburutegiak behar handiak zeuzkan eta lan asko egin da"*

Aiboka
KAFETEGIA - OKINDEGIA
Domingo Ibaibarriaga, 5 - Tel. 943 60 46 73 - MUTRIKU

ANDONEGI
Barrenkalea 2 Tel. 943 603698
UDABERRIAN MODA BERRIA!
JANTZIAK





> *"Aldaketa handiak egin dira; modernizatu egin da: asko hobetu da!"*

edo artikulu jakin baten fotokopiak eskatu... eta horrelakok egin ditzakezu erraztasun osoarekin. Horrela eskatutako liburuak ezin dira etxera eraman; liburutegian bertan irakurri edo kontsultatu behar dira. Hona hemen Web-orriaren helbidea:

www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua

Txartel berezi bat behar al da horretarako?

Ez, sarean dauden liburutegi guztietarako balio du Mutrikun ateratako txartelak. Udan, adibidez, asko ikusten da hori: kanpotik etortzen den jendeak bere liburutegiko txartelarekin ateratzen ditu hemengo liburuak. Txartela lortzeko inprimaki bat besterik ez da bete behar: datuak eman eta nahikoa da. Orain txartel berriak egiten ari gara: sarean dauden liburutegi guztietara joateko balio dutenak. Gainera, ez dago adinik; umeek ere egin dezakete.

Liburuez gain, besterik eskaintzen duzue?

Bai, multimedia materiala ere badaukagu: musika CDak, umeentzako ipuinak eta bideoak, DVD informatiboak eta dokumentalak, hiztegiak eta entziklopediak CD-ROMean... Material hauek guztiak denon eskura daude. Haur liburutegian asko erabiltzen dira DVDak; baina, badirudi helduak ez direla oraindik aukera horretaz jabetu.

Apirilaren 23an, Liburu Eguna! Zer daukagu aurtengoa ospatzeko?

Apirilaren 24tik aurrera liburuaren astea antolatu dugu: umeentzako tailerrak, Yolanda Arrietarekin; helduentzako hitzaldia, Código da Vinci-ren inguruko; umeentzako ikuskizun bat eta, azkenik, Mandalen inguruko erakusketa eta tailerra. Hau oso gauza berria da.

Zer dira "Mandalak" diozun hori?

Mandala aspaldiko arte modu bat da. Munduan zehar tradizio espiritual ezberdinetan erabili izan den zirkulu sakratua da. Mandalak oso modu desberdinetan sor daitezke eta guk eskainiko dugun teknika hitz baikorren idazketa izango da. Izan ere, hitzek indarra dute, bereziki, argitasun eta esker oneko hitz indartsu eta baikorrek. Hitz horiek elkarri lotu eta zirkulutan idatzita sortzen dira Mandalak. Hitzen ahalmen horrek maitasuna hedatzen du gure inguruan. Indarberritu egiten ditu pertsonak.

Mundu osoan milaka pertsona aritu dira esker oneko, bakerako eta hitz baikorreko Mandalak egiten. Arte modu berritzat hartu dira Mandalak eta munduko hainbat hiritan jarri dituzte erakusgarri. Oso gauza berria da; aitzindariak izango gara horretan. Merezi du erakusketa ikustea.

> *"Mandalen erakusketa oso gauza berria eta polita da: merezi du!"*



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
ONDA
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ANSORREGI
Oinetakoak
Erdiko kale, 9 - 943 60 33 42

BENITO eta IGOR ROMERO errepidea arnasten

Aita-seme hauek txirrindua aukeratu dute beren kirol bizitzarako. Atxukale taldearen arimetako bat dugu Benito eta Igorrek aitaren bideari jarraitzen dio, afizionatu mailako Debabarrena taldean.

Urteak eta urteak, hogeitaseigarrena aurten, haur eta gazteei begira eguneroko lanean. Zenbat hitz, zenbat aholku, garaile izan daitezen beren bizitzan, txirrindu gainean edo ez,baina beti eginahalaren bidetik. Igorrek, nahiz eta oraindik hemeretzi urte izan, ondo ezagutzen du bide hori, lasterketa batean izandako istripu batek are eta gehiago zaildu baitu bide horretan. Biek jartzen dute ilusioa egiten duten lanean eta barnetik bizi dutela nabaritu du Kalaputxik beraiekin izandako solasean.



> *"Lana eta ardurarekin beti iritsiko da ezartzen den helburura"*



Nondik datorkizue txirrindu zaletasun hau?
Nire amaren neba bat, Meltxor Suberriola –dio Benitok–, txirrindularia izan zen eta umetatik hurbil izan ditut txirrinduak; nire koinatua gazte ezagutu nuen lasterketetan eta, ibiliaz-ibiliaz, bata eta bestea ezagutu, elkartu eta herrian zikloturismoko talde bat sortzera iritsi ginen. Horrela, ikastolako gurasoak etorri zitzaizkigun ea haurrekin zerbait egitera ausartuko ote ginen, eta hortik etorri ziren poliki-poliki maila ezberdinetako taldeak, gaurko egunera arte.

Nik –dio Igorrek–, gurasoen iturrietatik edan dut txirrindu mundua, zeren amaren aldeko aitonak, Ondarruko "boteronekoa", txirrindu denda bat zuen eta zikloturista bezala ibiltzen zen, osaba, aitak esan bezala, lasterketetan hartzen zuen parte...; beraz, esan dezagun ez nuela beste aukerarik.


Dena den, Benito, zuk kirol zuzendari jokatzen duzu, nola iritsi zinen horretara?
Haurrekin hastean, laister konturatzen zara ezin duzula zikloturismoko taldean bezala jokatu; haurrek bide egoki bat hartu behar dute eta batez ere ondo neurtua. Beraz, lehenengo formazio ikastaro batzuk egin nituen eta hori ez zela nahiko eta prestakuntza gehiago behar zela ikusita, kirol zuzendari izateko kurtsoak egin nituen. Nolabait, beharrak edo ardurak eta nire zaletasunak eraman ninduen horretara.

Izan zenuen izen handiagoko taldeetara joateko aukera ere, ezta?
Bueno, bai, eta joan banintz agian erosotasun gehiago izango nuen gaur egun. Hala ere, garbi neukan zer nahi nuen bai talderako eta baita nire familia bizitzarako ere eta ez zitzaidan asko kostatu ezetz esatea.

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

aparra udaberriko moda
JANTZIAK - PITXIAK
Erdiko-kale, 29
Tfno.: 943 60 45 94
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

Zer sentitzen duzu zure eskuetatik igarotako gazte batek, Osa anaiak, Pello... lasterketa bat irabazten ikustean, telebistan adibidez?



Esku artean duzun gazte batengan garaile izateko aukerak dituela ikusten baduzu, ahalegin gehiago eta hurbilagotik jarraitu beharrean aurkitzen zara. Gazte hori inoiz irabazten ikustean, pozaldi handia izaten duzu eta zure ahaleginetan jarraitzeko indarra ematen dizu horrek. Baina txirrindua utzita bere ikasketetan jarraitu eta bere bizitza antolatu dutenetako batek kalean kasu egin eta, lasterketa baten ondoren karrerako uneak kontatzen zizkidan bezala, bizitzaren nondik norakoak kontatzen dizkidanean, orduan ere, nire bihotzak hunkiturik bere taupadak bizkortzen ditu. Denak dira niretzat garaile, eta txirrindua bakoitzaren izaera sendotzeko tresna bat izan daitekeela igortzen ahalegindu naiz beti. Infantiletan dabilen haurrari, zein kadete edo jubeniletan dabilenari, garrantzi bera ematen ahalegindu naiz beti, entrenamendutik eta konpetizioraino, azkenean, norberaren nagikeriarekin borrokan motibatzen eta bere burua prestatzen. Lana eta ardurarekin beti iritsiko direla ezartzen duten helburura, bai lasterketetan bai bizitzan, behin eta berriz errepikatzea izan da nire eginkizunetako bat.

Zer esango zenioke gazte bati, Benito, txirrinduaren munduan has dadin?

Kirol bat zein bestea aukeratu, gustuko behar duela azpimarratuko nioke. Aukeraketa horretan badaude zenbait alderdi gazte baten formazio pertsonalerako egokiagoak ikusten ditudanak, eta txirrindularitzan horiek lantzen dira.

> *"Gazte baten lehen lana estudioak dira; txirrindularitzak ikasle hobea izaten lagunduko dio"*

Hurrena, lehentasunen kontua aipatuko nioke eta kirola bigarren mailan utzi behar dela esan. Gazte baten lehen lana estudioak dira eta ziur nago txirrindularitzak lagunduko diola ikasle hobea izaten.

Gogora etortzen zait taldean izan nuen batek, txirrindua utzi eta urteak pasa ondoren, nola esaten zidan: nirekin ez duzu frakasatu, Benito; gauza asko ikasi dut, bizitza beste era batera ikusten erakutsi didazu eta nire egunerokotasunean asko laguntzen dit txirrinduan ikasitako sufritzeak eta besteekin konpartitzeak.

Dena den, askotan haurra ez da gai aukeraketa egiteko eta, hori dela eta, gurasoei zuzenduko natzaie beren seme-alabei bide egoki bat hartzen laguntzeko esateko, ez dezaten porrota izan ondorio. Kirolean disfrutatzen ikasi behar du gazteak, bizitza osoan lagun izan dezan.

Eta zuk, Igor, zer deritzozu aitak esaten duenari?

Ni irabazle sentitu naiz zortzi urte nituenetik. Kirol arloan eta gazteenen kategorietan garaipenak izan ditut urte guztietan, baita kadete mailan ere, tartean Gipuzkoako txapelketa linean eta montanbaiken; jubeniletan ere izan ditut garaipenak, Gipuzkoako txapeldun erlojuaren aurka hogeitahiru urte azpikoentzat eta bostgarren Lehendakari txapelketan. Hala ere, ikasketei ematen diet lehentasuna eta lortuko dudan helburu hurbila, heziketa fisikoko tituloa ateratzea da magisteritzan; hurrena, agian, unibertsitate mailakoa (IVEF); urratsez-urrats nahi dut egin aurrera. Kirolean profesional izatera iristea ez da helburua, "ilusioa" da, baina ahaleginduko naiz.

> *"Herritarren babesa garrantzizkoa dela kirolari batentzat, batez ere gauzak oker datozenean"*

Istripu larria izan zenuen jubenil mailako lasterketa batean. Zer suposatu zuen zuretzat?

Pelbiseko hezur bat, beso bateko kubitoa eta beste besoko erradioa hautsi nituen eta sei egunetan egon behar izan nuen zainketa bereziko gelan; hogeitabost egun ospitalean gehi beste hiru aste gurpildun aulkian. Horrek guztiak, noski, azterketa sakona egitera eraman ninduen, baina hemen jarraitzen dut aurrera indarberriturik. Istripu hark eta ondoko guztiak garrantzi handia izan zuen nire izaera sendotzeko.

Entrenamenduak gero eta kilometro gehiagokoak dira. Nola baldintzatzen dizute bizitza?

Ikasketak eta entrenamenduak ondo tartekatzen ditut oraingoz. Lagun arteko harremana asko murriztu zait, baina daukadan denbora apurrak ondo aprobetxatzen ditut. Lagunek errespetatzen dute nire aukera eta, sasoi batean erdi txantxetan ibiltzen baziren ere, gaur naizen bezala onartzen naute, eta hor nabil ni, nire txirrindua ferekatzen, eurak agian neskatxaren bat laztantzen daudenean.

Zer esango zenieke, Igor, mutrikuarrei Kalaputxitik?

Ingurukoen eta herritarren babesa garrantzizkoa dela kirolari batentzat, batik bat, garaipen edo lorpenik ez dagoenean eta, zer esanik ez, lesioren bat izaten denean. Eta hori..., herrian dauden kirolariez une garratzetan gogoratzeko, gehienetan garaipenak izaten dituztenean soilik hartzen baitira kontuan.











KALAP

KALAPUTXI, proze

Euskal Herriko herri euskaldun gehienetako herri-aldizkariek herriko bertako gai eta pertsonaien gaineko informazioa jasotzeko aukera ematen diete herritarrei. Duela bost urte, mutrikuarrek euskaraz irakurtzeko aukera bazuten: Egunkaria eta beranduago Berria, Argia, Elhuyar, Gaztetxulo... Euskaraz irakurri nahi zuenak, hortaz, bazeukan horretarako aukera. Hala eta guztiz ere, orduko Euskara batzordeak bultzatuta, iritzi zitzaion euskaraz irakurtzeko aukera herritar guztiengana eraman behar zela. Hantxe hasi zen Kalaputxi.

Hasierako helburuetan bat, herriko etxe guztietara ailegatuta mutrikuar guztien eskura euskarazko irakurgaia jartzea hartu zuen Kalaputxik. Irakurgai horren nolakoaz ere ez zen bat ere zalantzarik izan: Herritarrengandik hurbil egon litezkeen gaiak hartu behar ziren aintzat, Kalaputxin ez bazen beste komunikabideetan nekez aurki zitezkeenak. Horrela, herriko pertsonek esateko zutenak hartu zuen lehentasuna aldizkariaren orrietan.

Martxa egokiari lotu aurretik nahikoa tira bira bizi izan ziren, hilabetero kalean egoteko geure buruari jarritako obligazioari erantzuteko moduarekin asmatu arte. Seigarren aletik aurrera gaur arte ailegatzeko balio izan digun funtzionamendu erarekin asmatu genuenetik, horrela jokatzen dugu: Batzarrak, informazio bilketa eta horren lanketa, aldizkaria maketatzea, inprimatzea eta buzoira eramatea. Bi hitzetan azkar-azkar adierazten den prozesu hori, baina, luzeagoa eta nekosoagoa gertatzen da. Hurrengo lerroetan ikusiko duzu, irakurle, Kalaputxi nola egiten dugun.

> “Herriko gaiak oinarri hartuta, euskaraz irakurtzeko aukera eman nahi diegu mutrikuar guztiei”

GAIAK JARTZEKO BATZARRA

Hil bateko Kalaputxi kalean ikusi aurretik hasten gara lanean, hurrengo zenbakirako gaiak jartzeko batzarrean taldeko bost lagunak batuta. Bakoitzak dituen ohizko zereginak bukatu ondoren gaueko bederatzietan elkartuta, bizpahiru ordu irauten duen batzarrari hasiera eman eta lanean hasten gara gaiak, pertsonaiak zerrendatzen, bataren eta bestearen egokitasuna aztertzen...

Aldizkari bakoitzean gaien eta pertsonaien artean aukera egitea zail gertatzen zaigu maiz, gazteen eta edadetuen gustuei begira, aldizkariak testu moten artean izango duen oreka bilatzeari begira, emakumezkoen eta gizonezkoen presentziari begira... Batzuetan iruditzen zaigu ez dugula erabat asmatzen eta aldizkaria etxean jasotakoan beste era batean antolatuta hobeto egongo litzatekeela ere pentsatu izan dugu behin baino gehiagotan.

Gaiak jarrita eta emango zaien hedadura erabakita daudela, taldeko zeinek zein gairi helduko dion erabakitzen dugu, gaiaren edota pertsonaiaren hurbiltasunari erreparatuta. Erreportaia edo elkarrizketa izango den erdi erabakita lagatzen da lehenengo batzar horretan, jasotako informazioaren arabera aldaketak egon baitaitezke. Hortik aurrera, lanera. Bakoitzak bere testua eta tes-

PUTXI

esu baten emaitza

tuari lagunduko dioten argazkiak zein irudiak lortu beharko ditu. Laguntzaileei ere batzar honen buruan ematen diegu beren espazioa eta lanak entregatzeko epearen berri.

JARRAIPENA EGITEKO BATZARRA

Gaiei heldu eta horiek lantzeko pare bat aste hartuta egiten dugu zenbakiko bigarren batzarra, jarraipena egiteko erabiltzen dugu-na. Batzar honen helburua da gauzak aurreikusitako bidetik doazen begiratzea eta zerbaitek edo norbaitek huts egin badu sortutako hutsunea betetzea. Zorionez, aurreikusitako gaietatik hil askotan bat baino gehiagok huts egin badigute ere, gaur artean beti izan gara gai aldizkariaren hogeita zortzi orriak betetzeko.

Jendearengandik eta buzoian jasotako zorion agurrak, argazki zaharrak, iragarkiak, agenda, informazio orokorra... Gaien aurreikuspenean sartzen ez diren hamaika kontu txiki sortu ohi dira batzar batetik besterako tartean eta horiei ere heldu egin behar! Lan hori batzarretatik kanpo egiten da, bakoitzak ataratzen duen denboran, arratsaldean, gauean...

> “Kalaputxi buzoian jasotzean, hurrengorako lana hasita dago”

LANAK ENTREGATZEKO BATZARRA

Inprentarako bidea hartu aurretik, bakoitzak egiten duen lana besteenekin batu behar da. Aldizkariaren atal bakoitzaren karpetan biltzen dira testuak eta irudiak. Dena batuta dagoela, testu guztien berrikusketa egiten da –hala ere, beti dago ihes egin duen hutsen bat! – Irudiak ere banan-banan errepasatzen dira formatu egokian dauden behatzeko (gris eskalan, 300 ppp...). Berrikusketa horiek eginda, dena biltzen da CD batean eta inprentarako bidean jartzen da.

INPRENTAKO LANA, GERTUN

Kalaputxiren sorreratik inprimatzen dugu aldizkaria Oñatiko Gertu inprimategian. Seigarren zenbakitik aurrera, gainera, maketatu ere bertan egiten digute aldizkaria. Prozesuaren azken egunak, hortaz, hantxe ematen ditu Kalaputxik. Hilero daukagu atzeratu zaigun zer edo zer eta Gertukoek, Elena eta Juaninaz aurrean direla, hor egoten dira posta elektroniko bidez bidaltzen dizkiegun azken testuak eta azken irudiak maketatzeko prest, batzuetan azken orduko zorion agur bat txertatzeko eta bestetan, gehienetan, azken-azken ordura arte bukatu ezin izan dugun erreportaje edo elkarrizketa oso bat sartzeko. Aldizkari bat baino gehiago iritsi zaigu garaiz Gertukoei esker!

ALDIZKARIAREN BERRIKUSKETA

Aldizkaria maketatuta dagoela, inprimategitik aldizkariaren testudun orri guztiak bidaltzen dizkigute, posta elektroniko bidez, errepasoa eman diezaiegun. Normalean, jaso eta hurrengo egunean bidali behar izaten dugu berrikusketa, oniritzia, inprimatzen has daitezen. Arrapaladan ibiltze horrek askotan eramaten gaitu akats nabarmenez ez konturatzera eta horrela, askotan geureak diren akatsak ikus daitezke aldizkarian. Urrutira joan gabe, azken

















zenbakian iragarki batean merkealdia irakur zitekeen denboraldi berriko jantziak saltzen hasita zegoenean edo, argazki zaharretan Leonardoren izena falta zela konturatu gabe bidali genuen. Zenbat horrelako! Barka biezazkigute guztiek. Aldizkariaren maketaren zuzenketa eginda, azala eta kontrazalarekin batera bidaltzen da Gertura berriz ere, ordurako makinetan sartzera.

AZALA

Atal berezia eman behar diogu azalari, Kalaputxik arrakastarik badu, neurri handi batean, azalari esker baitu. Iñigo Andonegi dugu aldizkariaren azalaren egilea. Nabari da. Zenbat lo galdu, zenbat ordu lanean, zenbat eta zenbat maitasun jarria mutrikuar guztien eskuetara ahalik eta produktu ederrena ailegatzeko. Borondatez egindako lan hori guztia merkatuko prezioan ordaindu beharko bagenu... Eskerrik asko, Iñigo.

> “Kalaputxik arrakastarik badu, neurri handi batean, azalari esker du, Iñigok egindako azalari esker”

ALDIZKARIAREN BANAKETA

Garraiolariek hamairu kutxatan bi mila Kalaputxi ekarrita, eguen arratsaldean edo gauean prestatu behar izaten da hurrengo egunean Institutuko azken mailako ikasleek banaketari ekin diezaioten. Barixaku arratsaldean, hiru eta erdiak aldera, Kalaputxi buzoietan sartzen hasten da herri osoan, nahiz eta batzuetan buzoi batzuk hutsik geratzen diren. Baserrietara ere iritsi behar eta taldeko bi lagunek kotxea hartu eta Mutrikuko bailaraz bailara joaten gara bide bazterreko buzoietan aldizkaria sartzera.

HARPIDETZAK

Herrian banaketa eginda dagoela, aldizkaria kanpoan bizi diren eta bidaltzeko eskatzen zaigun mutrikuar zein kanpotarrei bidaltzen diegu aldizkaria, hauek korreoz. Kalaputxi Kadizera, Bartzelonara, Iruñeara, Alemaniara, Kastelloira, Estatu Batuetara eta beste herri batzuetara iristen da. Eta horiekin batera, Euskal Herriko komunikabide nagusietara bidaltzen da ale bana, noiz edo noiz gure herriko gairen edo pertsonaiaren baten inguruan sakondu nahiko balute ere.

...ETA GEHIAGO

Eta hilabete osorako irakurgaia mutrikuar guztien eskura jarrita, pozik oheratzen gara barixaku horretan, jakinda astelehenean hurrengo zenbakiaren jarraipena egiteko batzarra dugula.

KALAPUTXI

AMAITZEKO

Orain artean Kalaputxi egitea posible egin duzuen guztioi eskerrak eman behar dizkizuegu, gure borondatezko langintza honetan zuen laguntzarik gabe askoz nekezagoa izango bailitzateke. Eskerrik asko, hortaz, iragarkiak jartzen dituzuen guztioi, zorion agurrak ekartzen dituzuenoi, gutunak idazten dituzuenoi, informazioa eskuratzen diguzuen guztioi, argazki zaharrak erakusten dituzuen guztioi, udaleko oraingo eta lehengo euskara batzordekide guztioi... eta nola ez, hitz hauek irakurri dituzuen irakurle guztioi. Zuekin pentsatuta dago eta zuentzat da Kalaputxi.

‘Kalaputxik arrakastarik badu, neurri handi batean, azalari esker du, Iñigok egindako azalari esker’

KALAPUTXI mutrikuar batzuen iritziz

Kalaputxik 50. zenbaki honetan kalera irten du, hogeita zortzi herritarri galdetzera eta aldizkariaz duten usteaz galdetzera. Helburu inkesta zientifiko bat egitea izan gabe, hamalau emakumezko eta hamalau gizonezkorengana jo dugu. Parean gertatutakoei galdetu gabe, herritarrak adin tarteka banatu ditugu eta multzo horietako lau laguni galdetu diegu. Hauek izan dira adin tarteak: 14-18, 19-25, 26-35, 36-50, 51-65, 66-80 urte artekoak eta, azkenik, 80 urtetik aurrerakoak.

Galdetegia zabalagoa izan zitekeen arren, hiru galdera egin dizkiegu 28 informatzaile horiei: 1) *Irakurtzen duzu Kalaputxi?* 2) *Zer ikusten duzu faltan?* ea 3) *Zer ikusten duzu soberan?* Galdera zuzen horiek eginda, aldizkariaren aurkezpenaz, lantzen dituen gaiez eta aldizkarian erabiltzen den hizkuntzaz balorazioa egiteko ere eskatu zaie. Jarraian, galdera horiei emandako erantzunak eta balorazioak:

14-18 urte artekoak
Informatzaileak: M.I.E.,15 giz.; E.E.B., 17 giz.; I.P.A. 14 emak. eta I.Z.A., 14 emak.
Batek esan du *Iritxi gehiago* hartzen duela faltan eta beste batek, berriz, *batzuetan errepikatu egiten dela*. Bi lagunek dagoenean ondo dagoela esan dute.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 8,25; Gaiak, 8,25; Euskara, 10.

19-25 urte artekoak
Informatzaileak: A.V.A., 20 giz.; A.G.M., 18 giz.; A.A.A., 19 emak. eta O.U.G., 19 emak.
Batek esan du Denborapasak hartzen dituela faltan eta beste batek, berriz, *ingurugiroaz gauza gehiago agertzea* nahiko lukeela. Bi lagunek dagoenean ondo dagoela esan dute eta galdetutakoen ustez ezer ez dago soberan.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena 7,25; Gaiak, 6,5; Euskara, 7,5.

26-35 urte artekoak
Informatzaileak: A.L.E., 34 giz.; Z.A.A., 32 giz.; A.G.M. 32 emak. eta S.T.P., 29 emak.
Hiru lagunen ustez, Kalaputxi ondo dago dagoen moduan eta batek esan du *elikadura osasungarriari buruzko gauzak eta errezetak* hartuko lituzkeela gustura.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 7,75; Gaiak, 7,5; Euskara, 7,75.

36-50 urte artekoak
Informatzaileak: J.S.A., 41 giz.; A.G.L., 36 giz.; A.U.F., 36 emak. eta I.O.D., 37 emak.
Aldizkarian faltan hartu dituzten gauzak: *Historia gaiak gutxitxo* eta *karta gutxi zeuk esan atalean*. Soberan dauden gauzak, berriz: *Beste lekuetan irakur daitezkeen gauzak* eta *portuaren kontuak*.
Adin tarte honetan irakurle batek esan du aldizkaria ondo dagoela dagoenean.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 7,5; Gaiak, 6,5; Euskara, 8.

51-65 urte artekoak
Informatzaileak: J.M.M.S., 54 giz.; J.L.A., 59 giz.; M.K.F.U., 56 emak. eta A.A.O., 63 emak.
Bi lagunek ez dute faltakorik edota soberakorik ikusi Kalaputxin. Batek esan du *baserri giroko artikulu gutxi* dagoela ikusten duela eta, beste batek, berriz, *portuaren aurkako iritziak* soberan daudela.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 8,25; Gaiak, 7; Euskara, 7.

66-80 urte artekoak
Informatzaileak: J.M.G.U., 69 giz.; L.M.L.Z., 65 giz.; J.B.A., 72 emak. eta M.T.A., 68 emak.
Batek esan du *gazteen konportamenduari kritika gutxi* ikusten duela eta, beste batek, berriz, *gaurkotasuna duten gaiekiko iritziak* faltan hartzen dituela. Soberan egon daitekeen gauzarik ez dute agertu.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 8,5; Gaiak, 8; Euskara, 6,5.

80 urtetik aurrerakoak
Informatzaileak: L.L.F., 80 giz.; M.O.G., 89 giz.; B.O.L., 81 emak. eta P.L.M., 82 emak.
Batek ez du Kalaputxi irakurtzen, *irakurtzeko zaletasunik ez dudalako*. Beste hirurek aldizkaria dagoen moduan ondo dagoela esan dute.
Balorazioari dagokionez, oro har emanda: Aurzkezpena, 8,5; Gaiak, 7,5; Euskara, 7.

Horiek izan dira, labur-labur esanda, hogeita zortzi mutrikuarrek Kalaputxiri buruz agertutakoak. Ez onak bakarrik, faltan eta soberan hartutakoak kontuan hartuko al ditugu aldizkari egokiago bat ateratzeko! Eskerrik asko erantzun diguzuen guztioi. Jakin ezazue, irakurleok, zuen iritziak eta proposamenak jasotzeko prest gaudela Barrenkaleko Kalaputxiren buzoian. Animo!

AMODIOZKO GUTUNA

Aurten, Mutrikuko Institutuak "Maitasun-gutunen" lehiaketa antolatu du bertako ikasleentzat. Jasotako lan guztien artetik, Agurne Elorzarena (Batxilergoko 2LS taldekoa) jo zuten onenentzat epaileek. Ea zer irizten diozuen.



Abenduak 15

Maitasunaren betaurrekoak erantzi edo jantzi.

Txinan bizi naizen Yu Xian izeneko haur bat besterik ez naiz. Orain dela hiru urte saldu ninduen aitak, ni baino gizon zaharrago bati, eta harekin ezkondu nintzen, nahitaez. Bere gurasoen baserrian bizi naiz, anai-arreba txikiekin batera, nire gizonak soroan lan egiten duen bitartean. Betaurreko gorriak jantzi nituen ezkontza egun hartan, maitasuna aurkitu nahian. Momentu oro jantzitako betaurrekoak eranzteko beharra sentitzen dut, errealitatean sar nadin.

Betaurrekoak jantzirik murgildu nintzen maitasunez inguraturiko (kakotx artean) munduan. Iluntzearen zain igarotzen dut egun guztia, Mix Yui iristeko irrikitan nago. Tok-tok. Hara, egunaren bukaera iritsi da, lanaren amaiera. Afaria mahai gainean prest dago, okela errea, Mixen jakirik gustukoena. Iritsi bezain pronto laneko arropaz gain, zapore goxoko muxu bat eman dit. Segituan afaldu eta egongelan eseri da nik harrikoa egiten dudan bitartean. Leher eginda nago, baina Mixek jolasteko gogoa duela dirudi, bere ezpainek nire lepoa miazkatzen dute. Pixkana nire alkondara eransten didan bitartean, haur bat izateko ideiaz hitz egin dit. Mutil bat izan nahi du. Iritzi berekoa naiz ni neu ere. Amodioa egin dugu, ohearen mutur bakoitzean, leher eginda, lo hartu dugun arte. Eguzkia ateratzear dago, Mix lanera joan da. Gauera arte esan diot.

Betaurrekoak erantzirik murgildu naiz interesez inguraturiko (kakotx artean) munduan. Bakarrik hobeto nago, ez dut gaua iristerik nahi. Tok-tok. Mix iristear dago, lanaren amaiera. Hainbeste kostatako afaria mahai gainean dago,eskerrik beroenak ere jasoko ez ditudan arren, maitasun osoz egina. Laneko arropaz mendi tontor bat egiten ari naiz, Mixek muxu arrunt bat ematen didan bitartean. Segituan afaldu eta egongelan eseri da, nik harrikoa egiten dudan bitartean. Leher eginda nago; Mix, ordea, jai giroz dago. Arropa kentzen ari zait inongo laztanik gabe. Mutil bat izateko ideia darabil, eta zergatik ez neska bat? Baina zergatik ezin dezakegu neska bat izan? Sexua hutsean bukatu zaigu, gau guztia iratzarririk igaro dut. Eguzkia ateratzear dago, Mix lanera joan da ezer esan gabe.

Betaurrekoak janzten ditudan bakoitzean, itsutu egiten naiz. Eranzten ditudanean, aldiz, itsuarenak egin behar izaten ditut. Baina begiak itxi beharko ditut, errealitatetik kanpo mantendu ahal izateko. Maitatu al nauzu edo zaitut noizbait, laztana?

Yu Xian

Herriko zaharrekin solasean...

Txikiak ginenean, nori ez dio aitonak edo amonak istoriorik kontatu? Ez bat, mila istorio. Horietako batzuk ipuinak, beste batzuk xelebrekeriak, beste batzuk kontakizunak... Gure aiton-amonek bai dakitela asko! Mutrikun ere, badaude guri istorioak kontatzeko prest dauden batzuk, eta horiek, Mikel Deuna zahar egoitzan daudenak dira. Gu beraiekin hitz egitera joan gara, beraien gazte denbora eta kontu zaharrak gogoratzeko asmoarekin.

Egoitzan batera eta bestera ibili ondoren, bertako kide batekin egin genuen topo. Honek bere haurtzaroko hainbat pasadizo kontatu zizkigun. Horietako batek dio, bera eskolan zegoela, maisu herren bat zeukatela. Noizean behin jo egiten omen zituen eskuan, eta bera jotzera zihoanean, nahiz eta esku gogorrak eduki, berak ukabila jartzen zion, hala, minik ez emateko. Orduan, maisuak, "Vete de aquí" esaten zion garrasika. Hala eta guztiz ere, azkenean bere lagun egin zen.

Baita ere, bera txikia zenean, batzuk marraztera eta beste batzuk solfeora joaten omen ziren. Bera solfeora joaten zen. Denboratxoa ibili ondoren, solfeora joan beharrean, frontoira joaten hasi zen, klaseetatik piper eginez. Egun batean, bere solfeoko maisua eta aita elkartu eta hizketan aritu ziren beragatik. Mutil ona zela esan zion irakasleak aitari baina ez zela klaseetara joaten. Hala eta guztiz ere, aitak azpimarratu zion ez jotzeko inoiz ere bere semea. Etxeratutakoan, aitak galdetu zion semeari ea nondik zetorren. Honek "Solfeotik nator, aita" erantzun. Aitak, gezurra zela konturatu eta gero, zera esan zion: "Seme, zer, beste bide batzuk aurkitu dituzu solfeora zihoazen bidean ezta?". Nahiz eta piper egin, esan digu, bere aitak inoiz ez zion eskua gainean jarri.

Bestalde, garai hartan irabazitako guztia amari ematen ziola esan zigun. Igandetan egindako lanagatik sei pezeta kobratzen zuen eta, igandea zenez, bat erregalatzen zion jai eguna izateagatik. Honetaz aparte, bandan irabazten zuen gainontzeko dirua ere amari ematen zion beraren borondate guztiarekin.

Familian asko zirela ere esan zigun. Denbora pasa ahala, bera da bizirik gelditzen den anaia bakarra.

Josefa Tapiak kontatu zigunez, bere gazte denbora ez zen izan oso alaia. Hemezortzi urte zituen gerra hasi zenean. Hemen bere mutil laguna galdu zuen eta honek tristura handia ekarri zion, nahiz eta bere anaia bizirik irten zela jakitean poz handia ere hartu.

Gaztea zela, neskame lanetan aritu zen. Ondoren, oihal fabrika batean egin omen zuen lan, hilabetean jai egun bat zuelarik. Beraiek fabrikaturiko oihal ezberdinak gerrarako ekipaiak ziren. Familiari dagokionez, hamabost anai-arreba ziren etxean eta, gaur egun, horietako zortzik jarraitzen dute gure artean.

Hauetaz aparte, Jesus Furundarenak ere bere gazte denbora kontatu zigun. Gazte utzi zuen eskola, 9 urte zituela, eta, nahiz eta amari esan eskolara joaten zela, txipiroiak harrapatzera joaten zen. Eskola utzi ondoren, "Amaia" itsasontzian ibiltzen zen antxoak harrapatzen.



Gerrari buruz galdetu genionean, 12 urte zituela hasi zela gerra esan zigun. Berak gogoratzen du italiar asko ibiltzen zirela hemen inguruan garai hartan. Tropetan zeuden banaturik eta 1500 lagun inguru zebiltzan aurrera eta atzera. Lau anai-arreba ziren eta gurasoekin bizi ziren.

Maria Larrasarekin ere egon ginen eta honek kontatu zigun bere gaztaroaz ez zuela oroitzapen onik. Horren arrazoia, familia ugaria izatea izan zen batik bat: 9 anai-arreba (zazpi neska eta bi mutil) eta gurasoak izan ziren etxean. Gainera, gero, gerra etorri zen eta bera gaztea zela harrapatu zuen. Orduan, Martutenen bizi zen. Oso une txarrak pasatu zituen urte horietan zehar. Ofizioz jostuna zen eta zenbat puntada eman ote ditu Mariak!

Azkenik, Paco Arrasaterekin egon ginen. Bere gaztetako denbora nolakoa izan zen galdetzean, erantzun garbi eta zuzena jaso genuen: "Zeruan". Ondo pasatzen saiatzen ziren miseriak alde batera utzita. Honetarako pilotan eta beste hainbat eta hainbat joko ezberdinetan jolasten zuten.

Bere lana, ojalatero lana zen, hau da, gaur egungo iturgina bezalakoa. Fabrikan egin zuen lan urte askotan.

Horrela bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Mutrikuko plazan.

Bukatzeko, eskerrik asko gure galderei erantzun diguzuen guztioi, seguru nago gustura asko kontatu diguzuela-eta zuen gaztaroa!

Asier Juaristi Iparragirre
Institutuko Prentsa-tailerrekoa

Laser urdinaren gatazka

DVD-a oraindik gure etxeetan finkatu ez den arren, aurten *Bereizmen Handiko* DVD-ak merkaturatuko dira, Japonia eta Estatu Batuetako merkatuetan, bai behintzat. Beste askotan gertatu ohi den bezala, kontsumitzaileei nahiko buruhauste ekarriko dizkie aparatu hauek. Izan ere, *Bereizmen Handiko* DVD-en bi estandar ezberdin sortu dituzte: *Sony*-k, Blu-ray, eta *Toshiba*-k, HD DVD. Formatu diferenteak izan arren, diskoak irakurtzeko *laser urdina* erabiliko dute biek.


Egun ezagutzen den DVD-a, 1997an agertu zen Estatu Batuetako merkatuetan. Hemen, beranduxeago iritsi zen, baina azken hiru urteotan zabaldu da, batik bat, bideo formatu hau gure artean.

VHS-a (betidaniko bideo zintak) alde batera utzi eta DVD-ra oraintsu pasatu den edonork, honek eskaintzen duen kalitate ederraz ohartzeko aukera izan du. Bideo imajina garbia eta gardena eskaintzen du DVD-ak, eta VHS-arekin gertatzen ez den bezala, denborarekin kalitatea mantendu egiten du.

DVD-ak edo Telebista Digitalak eskaintzen dituzten imajinen bereizmena edo *erresoluzioa*, *Bereizmen Estandar* (SDTV, ingelesezko siglak) modura ezagutzen da. Sistema honek ez darama denbora luzea gurean, baina badu ordezkoa: **Bereizmen Handia** (**HDTV**).

Bereizmenak, telebista edo ordenagailu baten monitoreaz ari garenean, pantaila hori zenbat *pixel* edo puntutan banatuta dagoen diosku. Zenbat eta *pixel* gehiago, irudikatzen den imajinaren bereizmena are eta hobeagoa.

Hau hobeto ulertzeko, begira ditzagun hurrengo imajinak. Eskuinekoak, *Bereizmen Handiko* sistema bateko kalitatea simulatzen du. Ezkerrekoak, berriz, *Bereizmen Estandarrak* imajina berbera nola irudikatuko lukeen aurkezten du. *Erresoluzio* handia dugunean, *pixelak* txikiagoak dira eta hauen kopurua handiagoa. Ondorioa: *Bereizmen Handiko* telebista batek zure gustuko film, dokumental edo futbol partidua *izugarrizko errealismoarekin* erakuts ditzake.



***Erresoluzio konparaketa**: Bereizmen Estandarra (SDTV) eta Bereizmen Handia (HDTV).*

Estatu Batuetan, telebista kate batzuk jadanik beren programak HDTV sistemarekin igortzen dituzte (bejondeiela amerikarrei!). Europan, berriz, sistema hau oraindik ez da ia erabiltzen. Momentuz, satelite bidezko ordainpeko kanal belgikar bat da halako zerbitzua eskaintzen duen bakarra eta, laster, *SkyHD* deritzan kanal britainiarra ere *Bereizmen Handian* igortzen hasiko da.


Badirudi, beraz, *Bereizmen Handiko* telebista kateak ikusteko aukera handirik ez dugula izango, momentuz, nahiz eta sistema honekin bateragarria den telebista aparatua erosi. Dena den, telebista kanalez aparte, badago, HDTV-az gozatzeko beste modu bat: Belaunaldi berriko DVD erreproduzigailuak erabiliz. Izan ere, bai *Sony*-k bai *Toshiba*-k, *Bereizmen Handiko* DVD estandar berriak sortu dituzte: **Blu-ray** deritzana, lehenengoak, eta **HD DVD** izenekoa, bigarrenak.



***Blu-ray** eta **HD DVD**: Laser urdineko erreproduzigailuak.*

Bereizmen Handiko imajinen xehetasun handiak informazio gehiago gordetzea eskatzen du. Eta hauxe izan da DVD berri hauek sortzearen arrazoi nagusia. Izan ere, DVD estandarra geruza bakoitzean 4,7 GBeko informazioa gordetzeko gauza da. *Blu-ray* eta *HD DVD* diskoek, berriz, geruza bakarrean 25 GB eta 15 GB gorde dezakete, hurrenez hurren. Geruza gehiago erabiliz, 50 GB inguruko edukietara hurbil daitezke.

Disko berri hauek gaur egun erabiltzen ditugun CD eta DVD-en tamainakoak dira. Espazio berdinean informazio gehiago gordetzen dutenez, bertan idazten den informazio unitatea txikiagoa da. Hori dela eta, DVD berriok laser urdina erabiliko dute diskoko datuak irakur-



Blu-ray formatua babesten duten enpresa garrantzitsuenen zerrenda.

tzeko, izpi urdina finagoa baita, nolabait esateko, egun erabiltzen diren irakurgailuen izpi gorriaren aldean.

Baina, zergatik sortu dira *Bereizmen Handiko* bi DVD sistema ezberdin, baten ordez? Sortzaile diren *Sony* eta *Toshiba*, bakoitza bere aldetik hasi eta, saiatu arren, ez dira akordio batetara iritsi estandar bakarra ateratzeko. Zirkunstantzia honek, buruhausteak baino ez dakarzkie elektronika fabrikatzaileei eta zinema-estudioei, eta baita kontsumitzaileoi ere. Bi estandarretatik, ziur aski, bakarra aterako da garaile, eta horrek apustu egokia egitea eskatzen du.

Badirudi *Blu-ray* estandarrak dena bere alde duela. Abantaila modura, biltegiratzeko duen gaitasun handiagoa eta bere aldeko apustua egin duten enpresen kopurua. Alde txarra, berriz, *HD DVD*-a merkexeagoa izatea espero dela.

Egoera honek guztiak, seguru asko, *déjà vu* sentsazioa ekarriko zion norbaiti. Izan ere, 1980ko hamarkadaren hasieran halako gerra bat jazo zen bideo zinta formatuekin. Orduan, lehiakideak *JVC* eta *Panasonic*-en **VHS** eta *Sony*-ren **Betamax** izan ziren. *Betamax* formatuak kalitate hobea eskaini arren, *VHS* atera zen garaile borroka hartatik. *VHS* formatuaren prezio baxuagoa eta *JVC*-n lizentzia politika izan ziren emaitza horren gako.

Kasu honetan, historiaren zati bat errepikatu egin da. Itxuraz, *Blu-ray* erreproduzigailuak garestixeagoak izango dira *HD DVD*-arenak baino. Dena den, *Sony*-k ikasgaia ikasita ekarri du oraingoan eta elektronika fabrikatzaile handienen eta zinema-estudio garrantzitsuenen babesa ziurtatu du.

Horrela ba, *Sony*-ren taldean, beste askoren artean, enpresa hauek aurki daitezke: *Apple Computer*, *Dell*, *Hewlett Packard*, *Hitachi*, *LG Electronics*, *Panasonic*, *Mitsubishi*, *Pioneer*, *Philips*, *Samsung*, *Sharp*, *TDK*, *Thomson*, *Twentieth Century Fox*, *Walt Disney Pictures* eta *Warner Home Video*.

Toshiba-ren *HD DVD* estandarra babesten dutenak, berriz, gutxiago dira: *NEC*, *Sanyo*, *Microsoft*, *Intel*, *Paramount Pictures*, *Universal Studios* eta *Warner Bros*.

Blu-ray formatua babesten duten enpresa garrantzitsuenen zerrenda.

Baina noiz merkaturatuko dira belaunaldi berriko DVD hauek? Estatu Batuei dagozkien azken datuen arabera, *Toshiba*-k apirilaren erdi aldera aterako ditu bere lehen *HD DVD* erreproduzigailuak, merkeenak 500 dolar azpitik. Lehen *HD DVD* filmak ere apirilaren erdialdera irtengo dira. *HD DVD* grabagailuak, ordea, ez dira aterako 2007 arte.

Blu-ray formatuari dagokionez, lehendabiziko erreproduzigailu eta filmak maiatzaren 23an merkaturatuko dira. Eta formatu honentzako grabagailuak 2006ko azken hilabeteetan erosi ahal izango dituzte estatubatuarrek.

Batzuen ustetan, gatazkaren garailea bideojoko kontsolen belaunaldi berriek erabakiko dute. *Sony*-k azaroan aterako du mundu guztian *Blu-ray* irakurgailua eramango duen **PlayStation 3** berria. Aldiz, hurrengo hilabeteetan *Microsoft*-ek aterako duen **XBox 360** kontsolak *HD DVD* irakurgailua eraman dezake.

Garaile zeinahi izanda ere, *pirateatzea* ekidingo duen **babes sistema** aurreratua eramango duela jakin izan dugu. Sistema honek, gainera, lehenengo aldiz, aparatu elektroniko baten eroslea *zigor* lezake. Edukien hornitzaileek imajinen kalitatea jaisteko eskubidea gordeko dute, jendeak *pirateatu* ez dezan, baina aldi berean, erabiltzaile baimenduak ere kaltetuak izan daitezke. Horrela, *Blu-ray* eta *HD DVD*-arekin batera joango den *software*-ak automatikoki eskastuko du imajina kontsumitzaileen telebista aparatuek **HDMI** deritzan konektore eta kablea ez badaramatzate.



*Bereizmen Handia onartzen duten telebistek daramaten ikurra (**HD ready**) eta **HDMI** konexioaren irudia.*

Kontua zera da, egun saltzen diren telebista ekipoetatik portzentaje txiki batek baino ez daramala konektore mota hori. Beraz, HDTV telebista bat erostekotan bazabiltza, gutxienez *HDMI* konexio bat eraman dezala ziurtatu, *Bereizmen Handian* etorriko diren pelikulak ikus ahal izan ditzazun. Argibide txiki bat: Europan, *Bereizmen Handiarekin* bateragarriak diren telebistek ***HD ready*** pegatina daramate, kontsumitzaileok erraz identifika ditzagun.



mutrikuko gaztetxia







BADATOR GAZTETXE MARTXA

Apirilaren 28an helduko da Mutrikura Gaztetxe Martxa, Gaztetxe ezberdinak batu, babestu eta zabaltzeko helburuarekin. Apirilaren 21ean Maulen hasi eta Euskal Herri osoa igaro ondoren, maiatzaren 7an Iruñean bukatuko da. Mutrikun helburu nagusia Gaztetxea herrira zabaltzea izango da.

Duela bost urtetik gabiltza Gaztetxea eta Gazte Asanblada martxan, herriarentzat ekintza ezberdinak eginez eta alternatiba eraikitzaileak sortzen. Denbora tarte horretan herriko hainbat talderekin harreman ezberdinak izan ditugu: Bertso eskolarekin batera Plazatik Gaztetxera sortu genuen, tabernariekin eta udalarekin Gaba Beltzak aurrera eraman ditugu... Baina Euskal herri osoan Gaztetxe guztiek ez dute gure egoera bera eta boterearen jopuntuan daude: Gaztetxe asko desalojatuak (Atarrabia, Euskal jai, Sorgintxulo, Pintxu, Txantrea, Oñati, Ametsenea... guztien itxiera bortitzak), gazteak atxilotuak eta, duela aste batzuk ikusi ditugun bezala, epaituak beste gizarte mota baten alde jardute-agatik. Eraso hauen aurrean Gaztetxeok eta Gazte Asanbladok batzeko eta erantzun bateratu bat emateko beharra ikusi dugu, indarrak biltzeko beharra, komunikazioa bultzatzeko beharra... Gaztetxe Martxa sortzeko beharra.

ZER DA GAZTETXE MARTXA

Apirilaren 21ean Maulen hasi eta maiatzaren 7an Iruñean bukatuko den martxa da. Mauletik Iruñearako bidean, Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanblada gehienak igaroko ditu. Aste biko jaia izango da, tokian tokiko erreibindikazio eta festaz jantzia. Mila koloreko martxa bat, Euskal Herriko txokorik galduena ere astinduko duena. Gaztetxeak eta Gazte Asanbladak errealitate bat dira Euskal Herriko eguneroko bizimoduan eta Gaztetxe

Martxak hori agerian utziko du beste behin ere eta sekula baino ozenago.

"Gaztetxe Martxak gazteen arteko komunikazioa lantzea izango da"

Gaztetxe Martxaren helburu nagusiak Gaztetxeak babesteaz gain, herrien eta gazte ezberdinen arteko komunikazioa lantzea eta Gaztetxeen funtzioa herrietara zabaltzea izango da. Mutrikuren kasuan, helburu nagusia herritarrek eta batez ere gazteek Gaztetxea zer den jakitea izango da, izan ere, bost urte lanean gabiltzan arren, bada oraindik Gaztetxeko pareten artean zer dagoen ez dakienik.

BOST URTEZ AMETSAK BETEZ

Gaztetxearen historian mota desberdineko ekintzak eraman ditugu aurrera, beti ere hainbat arazo jomuga izanik. Landutako gaien artean, aipatzekoak dira, besteak beste, etxebizitza, feminismoa, ekologia, desalojoak, euskara... Horrez gain, asko izan dira gazteok gozatzeko antolatu ditugun ekintzak, guztiak aisialdiari begirakoak: ikastaroak (malabareak, dantzak, sukaldaritza, perkusioa...), kontzertuak (Zea Mays, Kloralita, Etxe, Gaitza, Izate Faltsua, Mendeku Itsua, Txapelpunk, Khronos...), bazkari eta afari herrikoiak (Erdi Aroko Azokaren egunean, Santo Tomas egunean...)

Gazteon arteko komunikazioa ezinbestekoa denez, beste herrietako Gazte Asanbladekin harremanetan jarriz, hainbat topaketa burutu ditugu gai ezberdinen lemapean, betiere, Gaztetxeak eta Gazte Asanbladak bultzatuz: Deba-Mutriku-Ondarroa mendi eta bizikleta martxa, Mutriku-Lea-Artibai Topaketa... Elkarteratze hauetan bizi izandako esperientzia ez da, ez, nolanahikoa izan; harreman berriak eginez gure aldarrikapenei

"Oraindik bada Gaztetxeko pareten artean zer dagoen ez dakienik"





indarra eman diegu eta hori oso aberasgarria izan da Asanblada guztiontzat.


Orain artekoa ez da gutxi izan, baina hemendik aurrerakoa ere ez da makal izango! Bost urtez elkar lanean gure arazoei konponbidea eman nahian eta ametsak betez aritu gara eta aurrera begira gazteok gogoz gatoz orain artekoa gainditzeko.

"Gaztetxia denon etxia" ez da lelo hutsa, herriko talde eta gazte ezberdinen teilatupea baita Mutrikuko Gaztetxea. Eta horixe da gure asmoa, hala nola, lokalen eraginez ematen den gazteen arteko komun ikazio ezarekin amaitzea. Gazteok komunean ditugun arazoak konpontzea, ideiak gauzatzea, ondo pasatzea... Gazteri bateratuago eta aktiboago bat osatzea.

"Aurrera begira gazteok gogoz gatoz orain artekoa gainditzeko"

Aurten badaukagu zer ospatu, Gaztetxearen bostgarren urteurrena guzti hau hasi genuenaren urteurrena eta Gaztetxea obratan izan arren, beste jai guztiak txiki utziko dituen jai handi batekin ospatuko dugu. Beraz, gazteok, prestatu!

zorion agurrak



IBAI
Apirilaren 18an 9 urte beteko dituen gure etxeko futbolistari Zorionak! eta muxu erraldoi bat aita, ama, Oihana eta etxeko guztien izenean.



ONINTZA
Zorionak eta lau muxu haundi amatxo, aitatxo eta Maddin partez.



AINHOA
Zure 8. urtebetetzean Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztion partez. Segi holakotxe jatorra eta alaia izaten!



ALAITZ
Apirilaren 18an 6 urte beteko dituen nere bihotzeko azukre koxkorrari, mila kilo zorion eta marrubizko muxuak aitaren partez.



ESTI
Gure kuadrillako juergistiai, apirilaren 22an 15 urte beteko duzulako, Zorionak eta ondo pasa!! Ah! Eta afarixan zain goz, e!



KALAPUTXI
Zorionak Kalaputxi... eta Kalaputxiren lagunoi! Zenbaki askotarako!



AIORA
Apirilaren 1ean zure bigarren urtea bete dezunez, Zorionak printzesa! eta muxu haundi bat etxekoen partetik.



EKAITZ
Wazemank hamalaugarrena ospatzera, earki gatxik eta! etxeko moxolo danen partez Zorionak!



ANE
Zorionak etxeko fubolistari apirilaren 28an 10 urte beteko dituzulako, ama, aita eta ahizparen partez.



JOSE LUIS, ARITZ eta MONTSE
Apirilaren 4an, 16an eta 27an badugu zer ospatu! Zorionak hirukote eta muxu haundi bana bihotz-bihotzez etxeko danon partez.

koadrila afariak, bazkariak, bataioak,
eguneroko menua
MUTRIKU - DEBA ERREPIDEA
LARANGA AUZOA
Etxeko Telf. 943 60 31 17
Jatetxea Telf. 943 60 31 67
SAN JUAN
MUTRIKU

PANADERIA
OKINDEGIA
POTERO
GREGORIO AZKUE
ETXEKO TEL. 943 60 43 17
DENDAKO TEL. 943 60 36 43
OKINDEGIKO TEL. 943 60 45 12

argazki zaharrak

Hiru suizar danborrean bainua hartzen zeudela itsasoak ekarrialdixa izan eta ito beharrean zeudela, 3 mutrikuarrek atera zituzten uretatik.




Ezkerretik: Isidro Arreitunandia «Tolon», Felix Agirrebengoa, Narkis Andonegi.

«Premio a la abnegación y al heroismo» Kofradiako Juntakoak dominak jartzen erreskatatzaileei. Ezkerretik hasita: Damian Basurko, Jesus «Larratxori», Iñaki Arrizabalaga, Pedro Arreitunandia, Narkis Andonegi.



IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera


PANADERI – BERRI
C/ BARREN KALEA, 4 TEL. 943 60 33 03
MUTRIKU



KALAPUTXI **egiten parte hartu nahi baduzu, deitu 635748393 telefonora. Gustura hartuko zaitugu!**

LIBURUAREN ASTEA



Apirilaren 24 tik Maiatzaren 1 arte

LIBURUAREN ASTEAN LIBURUTEGIA ERABILTZEN DUTENEN ARTEAN, LIBURU SORTAK ZOZKETATUKO DIRA!

Apirilaren 24tik maiatzaren 1era arte

ERAKUSKETA eta TAILERRA
“MANDALAK IDAZTEKO ARTEA”
Erakusketaren ordutegia: 18:00–20:00
Tailerra: 8–12 urteko umeentzat izango da.
Tailerren ordutegia: 17:00 – 18:00
Zabiel Kultur Etxean

Apirilak 24 eta 25

UMEENTZAKO TAILERRAK: “Literaturaz gozatzen”
Yolanda Arrieta
17:00–18:00: 5–7 urtekoak
18:00–19:30: 8–12 urtekoak
Zabiel Kultur Etxean

Apirilak 26

HELDUENTZAKO HITZALDIA
“Las claves del Código da Vinci”
Mariano Fernandez Urreisti
Zabiel kultur etxean, 19:00etan

Apirilak 27, eguena

UMEENTZAKO IKUSKIZUNA
“Amama Pantxikaren altxor ezkutua”
Zabiel kultur etxean, 17:00etan

Maiatzak 5, barixakua

MODA DESFILEA frontoian
Antolatzailea: Mutrikuko Institutoko Ikasleak

Maiatzak 6, zapatua

Pala txapelketa “relanpagua” Miruaitz frontoian

Maiatzaren 10ean, 17an eta 24an:

HISTORIA JARDUNALDIAK
Zabiel Kultur Etxean, 19:00etan

Maiatzaren 12an, barixakua

MUSIKENE
Santa Katalina Komentuan, arratsaldeko 20:00etan

Maiatzaren 22tik 26ra


VI Aste Musikala
Santa Katalina Komentuan
Mutrikuko Udal Musika Eskolak antolatuta

Maiatzak 21, domeka

SAN ISIDRO JAIAK
HERRI KIROLAK Olatz auzoan Meza ondoren

Maiatzak 28, domeka

Mendi Irteera: murgia-Altube



ANTZERKI EMANALDIAK

Maiatzak 26, barixakua:
“Urtean behin” antzezlana
AKELARRE taldea
Zabiel kultur etxean, gaueko 10:30etan

Maiatzak 27, zapatua
“Entsailu arratsalde bat”, “Norbait behar da pisua konpartitzeko” eta “Ileapaindegia”
IRATXOAK taldea
Zabiel kultur etxean, arratsaldeko 18:30etan

Ekainak 3, zapatua:
“Museoan lapurketa”, “Klase partikularrak etxean” eta “Modako tailerra”
PITXIAK taldea
Zabiel kultur etxean, arratsaldeko 18:30etan

ESTROPADAK

Apirilaren 29 zapatua, arratsaldean

Apirilaren 30 domeka, eguerdian

Trainerilak. Gipuzkoako Liga

Ekainak 3 zapatua, arratsaldean

Trainerilak. Mutrikuko ikurriña

euskal preso eta iheslari politikoak etxera

Jaunartzeak

AUKERAN:
oroigarriak karpetatxoetan
oroigarriak markoetan
album digitala



IÑIGOBELEN digitala
Konde kalea 3
Tel.: 943603701
Posta elektronikoa: iñigobelen@euskalnet.net
MUTRIKU

PLAZATIK GAZTETXERA

mutrikuko gaztetxia

V. edizioa

MUTRIKUKO BERTSO ESKOLA

KANPORAKETAK:

maiatzak 5, Ondarroan

maiatzak 12, Deban

maiatzak 19, Soraluze

FINALA:

maiatzak 27, Mutrikun

Antolatzaileak:
Mutriku, Deba,Ondarroa eta Soraluzeko Gaztetxeak eta Mutrikuko Bertso Eskola



✓ ISO-9002
✓ BRC Standards

LOREA Gourmet

1867. urtetik

Kantauriko Antxoak

Kalitaterik goreneko aukera paregabea

Antxoa fileteak Oliba oliotan - Antxoa fileteak Oliba oliotan Baratxuri eta Perexilarekin - Antxoa fileteak Oliba oliotan Piperminarekin - Antxoa fileteak Oliba oliotan Oreganoarekin- Alkaparretan biribildutako Antxoa fileteak Oliba oliotan - Antxoa krema - Antxoa saltsa - Antxoa gatzunetan

yurrita e hijos, s.a.
Ctra. a Ondarroa, s/n • 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) País Vasco
Tel.: + 34 943 603 245 • Fax: +34 943 604 420
www.yurrita.com